



INFANTILEN 1. MAILAKO ETA INFANTIL F-8KO FUTBOL TALDEETAKO KIDEAK FUTBOLARIEN MUTUALITATEAN SARTZEKO PROTOKOLOA

Dakizuenek, Infantil mutilen 1. Mailako eta nesken Infantil F-8 kategoria eskolarretako jokalariek EZ daukate Futbolarien Mutualitatearen asistentzia-estaldurarik, kategoria horietako zirkularretan adierazten den bezala.

Lehiaketa eskolarra denez, ez dagokio Gipuzkoako Futbol Federazioari laguntza ematea; beraz, lesiorik izanez gero, Osasun Zerbitzu Publikora edo aitaren edo amaren aseguru pribatuak duen laguntza-eskaintzara jo beharko dute.

Lehiaketaren izaera kontutan izanda, azterketa medikua eta mutualitatea aukerakoa izango da, baina bai gomendagarria edozein kirol jarduerak bere baitan dituen baldintzak saihesteko.

Horregatik, talde horiek Futbolarien Mutualitatera borondatez afiliatzeko, beharrezkoa da afiliazio-protokoloa zehaztea.

1. Klubak Mutualitatearen gipuzkoa@mutualidaddefutbolistas.com helbidera bidali beharko du talde horietako kideak afiliatzeko nahia formulario baten bidez. Formulario horretan ondorengo datuak jasoko dira:

Klubaren izena
NAN zenbakia, halakorik badu
Lehenengo abizena
Bigarren abizena
Izena
Jaiotze data.
Lizentzia mota (jokalaria/entrenatzailea/material arduraduna/ordezkarria eta abar)
Azterketa medikoa eta datuak babesteko baimen orria ere erantsi behar dira.

2. Datu horiek jasotakoan, mutualitateak jokalaria horien afiliazioaren aurrekontua bidaliko du, bai eta zenbateko hori ordaintzeko kontu korrontearen zenbakia ere.

3. Mutualitateak ordainketaren ordainagiria jasotzen duenean, alta emango zaie mutualistei, eta Futbolarien Mutualitatearen asistentzia-estaldura izango dute ondorio guztietarako.